

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zeperino Mandaluniz Gorroño

*Muxika,
Bizkaia
(1918-2016)*

Aurkibidea



Biografia



1918ko abenduaren 26an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Unda auzoko Barrenengo etxean. Ama bertakoa zuen eta aita Larrabetzuko Erkiko etxekoa. 11 neba-arrebatatik zortzigarrena da bera. 12-13 urtera arte Ibarruriko eskolara joan zen. Gero hiru urterako Arriandiko Akañana baserrira joan zen morroi kortako eta soroko beharrak egiteko. Gernikako bonbardaketako lekuko izan zen. Bonbardaketa ostean, gerrak irten zuenean, soldadu joan zen frontera, Amaiur batailoiko Arrasate konpainiako kide: Barakaldoko "trabajadores"en, Bilboko Eskolapioetan, Bizkargin, Solluben, Artxandan, Santander aldean, Laredon, Castro-Urdialesen, Lizarran, Teruelen... Guztira sei urte egin zituen soldadu; lizentziatu ostean bi urtez. Bertan burututako lanengatik fronteko medaila eman zioten. Ganaduaren salerosketan eta baserriko lanetan aritu izan da lanean; bi urtez aritu izan zen Gernika-Lumoko Soka lanean. Asteiko (Ibarrurin bertan) Felisa Arrazolagaz ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Ezkondu ostean Asteira joan ziren bizitzera eta bertan bizi da orain ere. Tartean, 30 urtez, Gernika-Lumon bizi izan da.

Zintak

MUX-012

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-15
- **Iraupena:** 94 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-013

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-15
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Eskolara gutxi, maisua beti jokoan

- **Erref:** MUX-012/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Umetan etxean behar asko egin arren, eskolara gutxi joaten ziren. Hala ere, Ibarruriko eskolara joaten zenean, maisurik ez zutenez izaten olgetan aritzen ziren. Maisua. Pradera abizenduna, jokoan aritzen zen eskolara joan beharrean. Erdara ez zuen eskolan ikasi, soldadutzan ikasi zuen dakiena.

2. Arriandira morroi

- **Erref:** MUX-012/003
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

12-13 urtera arte eskolan ibili zen, gero morroi joan zen lurretako Arriandi auzoko Akañana baserrira. Soloko eta kortako lanez arduratzen zen. Gabonetan eta Andra Marietan baino ez zen bueltatzen etxera. Hiru urtetara utzi zuen.

3. Gerra hasi eta segidan, frontera joan zen

- **Erref:** MUX-012/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Morroi lanak utzi zituenean, nabigatzen joateko asmoa zuen; baina gerra hasi zen, eta gerrara joan beharra izan zuen. Hiru egun Zugastietako Hipolitoren ferratokian egin ostean, Barakaldora joan ziren. Biharamunean, Langileen Batailoietara eraman zituzten. Eskolapioetan kintak osotu eta frontera eraman zituzten: Bizkargira, Sollubera, Artxandara eta Santander aldera. Castro-Urdialesen Ibarruriko alkatea aurkitu zuen: Burdaria auzoko Ramon Derteano. Hurrengo egunean, handik beste leku batera bidali zuten, Lizarrara (Nafarroa).

4. Cantabria, Teruel, Guadalajara... Sei urtez soldadu

- **Erref:** MUX-012/005
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Cantabriako frontetik Lizarrara bidali zuten, "Regimiento [Arapili?] número siete"ra. Handik Teruelera joan zen, eta han bataila gogorak bizi zituzten Muela mendian. Gero Guadalajara eta Singüesara eraman zituzten. Lizentziatu ostean, etxean zegoela, anaiaren partez berriro joan zen soldadu: beste 4-5 urtez egon zen, eta guztira sei urte egin zituen. Bigarren txanda horretan, beste gerra baten beldur ziren, eta hiru kinta mobilizatu zituzten. Sei urte egin zituen soldadu eta hiru urte inguru egon zen etxera etorri barik. Gutunak noizean behin idazten zituen.</p>

5. Amaiur batailoiko Arrasate konpainiako gudaria

- **Erref:** MUX-012/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Barakaldon Langileen Batailoietara eraman zituzten trintxerak egiteko. Hantxe bertan osotu eta altxatu zituzten frontierako kintak. 15 egun baino lehenago, fusila lepoan hartuta, Bizkargira joan ziren. Bizkargiko frontea gogorra izan zen, baina gogorragoak beste asko. Sollubetik Artxandara joan ziren gero. Batailoi guztiak euskaldunak ziren, beraiena Amaiur batailoiko Arrasate konpainia.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dozu hasikeran Barakaldora joan ziñiela eta gero "trabajadores"etara eroan otsuela. Zer zan hori?
- Trintxeragiñen, trintxeragiñen frenterako. Frentietarako trintxerak eitten.
- Eta zenbat denpora egon ziñen han?
- Denpora gitxi, ze kinttak diar ein gaittuen derrepente-ta. Barriro kinttek. Ta kinttak altxeu ta eskolapiosta Bilbora. Eskolapidxuetan ez geñun ein hamabost egun Bizkergiko frentera, fusil handidxe emon lepora-ta.
- Ta zelakoa izen zan Bizkergiko frentie?
- Gogorra. Bueno horren aldien gogorra Teruel eta horrek! Bai horrek

bastante gogorra. Gero hortik zerera, Sollubera. Sollubetik Artxandara. Artxanda be Artxanda gogorra. Ze bonba! ba!

- Euskeldun asko egongo ziñien.
- Bai gure batailloiek danak euskaldunek zien-ta. Batailloa gurie euskaldunek zien danak.
- Zein batailloi zan zurie?
- "Batallón Amaiur, Compañía Arrasate". Akorduen dekot oin be.

6. Ibarruritar asko hil zituzten gerran

- **Erref:** MUX-012/008
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:12:43. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Euskal Herriko fronteak baino gogorragoak izan ziren Teruelgoak. Beldur-egoerara pertsona moldatu egiten dela dio Zeperinok. Inguruko asko hil ziren; auzorik auzo aipatzen ditu hildakoak eta desagertutakoak.

7. Fusilak eskuan

- **Erref:** MUX-012/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:28. **Bukatu:** 00:19:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Fusilak eta metrailadoreak erabiltzen zituzten; berak beti erabili zituen fusilak. Esku-bonbekin eta balekin hornituta joan ziren. Ez zuten inolako prestakuntzarik, baina ikasi beharrekoa arin ikasten ei da. Teruelgo frontea Muela mendian izan zen eta nagusitan hurbildu zen berriro bertara.

8. Hiru anaiatatik bat soldadutzatik libratzen zen

- **Erref:** MUX-012/010
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:22:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Hainbeste urtean frontean eta soldadu ibili arren, sekula ez zen zauritu. Sei anaia egon ziren frontean. Zortzi anaia ziren eta bi libratu egin ziren, 3 anaiatatik bat libra baitzitekeen. Gurasoek erabakitzen zuten zein bidali eta zein mantendu etxean. Zeperino bigarren aldiz joan zen anaia bat ordezkatzuz. Sekula ez da damutu horretaz, baina berriro ez luke egingo.

9. Trintxera-zuloetan lotan

- **Erref:** MUX-012/011
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Teruelgo frontean, trintxera-zuloan motxila jarri eta bertan egiten zuten lo; lo egin zezaketenean, noski. Arerioen erasoetarako prest egon behar izaten zuten beti. Segurtasunerako, ez zuten ezer erabiltzen.

10. Anaiak anaien kontra

- **Erref:** MUX-012/013
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Seguru asko anaiak anaien kontra aritu zirela dio, ezin jakin. Horrelako kasu asko egon ziren, bando ezberdinetan egoten baitziren. Tiroka zabiltzanean, ez dakizu nor jo edo nor hil dezakezun. Zeperinok ez zuen senitartekorik galdu, lehengusua larri zauritu zuten, baina aurrera atera zen.</p>

Transkripzioa

- Eta iñoz ez jatzu paseu zure anaixan baten kontra edo famelikoren baten kontra edo edo ibilttie?

- A hori eingo genduzan, alderdi bixetatik ibilli gintzezan eta ein ein biher hori. Ibiliko gintzake. Zenbat ibilko zien? Zematek hil eta deu anaixak anaixatara, anaixak anaixatara be igual jakin ez eta tiro-tiroka. Ze bata batetik eta bestie bestetik, han nor hiltzen dan iñok ez daki, edo nok bota dauen tiroa, edo nun dauen bez.

- Nortzuk dienik barik.

- Klaro, klaro. Ze frente bat hemen dekezu, bestie hamendiko etxien dekezu, eta tiroka zabiz hamendik trintxeran handik trintxeran eta zuk ez dakizu hametik botata nor hiltzen dozun edo iñor hiltzen badan, joten bozun bez.

- Karo ezin jakin.

- Karo, anaixak anaixetara asko horretara, asko. Askok. Anaixak anaixatara be hilko zien, jakin ez, ze bixek dabizenak...

- Ta zuk famelikorik ez zenduen galdu?

- Ez. Baliaz jo bai, baliaz jo eta zerien geldittu bai. Bixotzan kontra geldittu balie ein jakon. Gero opereu ei eben handik, geroetara. Lelengotik operetako ibil zen eta Madrillera joan zan eta han be zertute eta gero,[...] hareixe operaziño klasie,ez daitz nungo mediku batek ein bihero dotsola eta gero balie atara otsoien /atatsoien/. Undekoa. Bai, lehengusu karnala, lehengusu karnala. Bai. ta beste baten euzokoa be, zerena, Felix Undabeitia, ha be bai. Ha [...] sartu otsien balie, [...] lekutik, zulue einde.

- Aidxudxeko (Ajuriako) Felix?

- Ez. Haren parientie izengo zan, Iborrikoa, Felix. Horrek hiru neba-arreba zien. Eta anaixe bik ez ben euki famelirik eta bestie neska zahar lotu zan. Eta oin propiedadiek eta propiedadiek eta lobak ba, ez daitz ba nora urriñera joan da beñipein herentzixe. Ha be bai. Ha be "por milagro" salbe zen, bestie baliek holako lekuen [...].

11. Etxeandin banatzen zuten errazionamendua

- **Erref:** MUX-012/016
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:35:03. **Bukatu:** 00:37:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>1929-1941 arteko kinta guztiak joan ziren gerrara. Gerra sasoian herrian ez egon arren, gerraostea ezagutu zuen. Tabakoa, ogi beltza... errazionamenduan ematen zieten. Ibarrurin Etxeandin ematen zuten.</p>

Transkripzioa

- Gerra denporan harrapeu eben dana, dana. Ta kintta asko, bua! Ba "cuarenta y uno" artien diar ein oskuen, "cuarenta y uno"ko jentie diar ein euen. "Cuarenta y uno"ra artien. Veinti nuevien hasi eta "Cuarenta y uno" arteko kinttie. Ze gure anaidxek "veniti ocho" marina zan "veinti nueve tierra hasta el cuarenta y uno", horrek kintta danak altxau euezan-ta. Kintta asko.
- Biherrrizena egongo zan.
- Ba klaro! biherrizena euelako diar eitten euen.
- Orduen zuk hemen Iburin jentiek sufridu ebana zuk ez zendun ezetu berton gerran: milizianuek zelan ibiltzen zien hemendik, errazionamentue kontue...
- Horrek errazionamentuek? hori bai. Bai, ezetuko ez naben ba errazionametue eta horrek? Jesus, Maria ta Jose. Tabako-orridxe errzaionamenduen euan. Bai!
- Ta zelan izeten zan hori?
- Ba errazionamendue, ba herridxen bakize nun saltzen eban. Ba errazionamentuek ba bakotzak honexen beste paketa hillien-edo. Geuza gitxi.
- Baia famili danari bardiñe jartzen otsien?
- Danari igual, danari igual, bai, bai, bai, danari erraziño bat.
- .- Eta ze emoten otsuen errazionametuen.
- Errazionamentuen emoten ebana ogidxe be bai. Txuskotxu bet, baltza bera, baltza, zahidxeaz eta zereaz eñikoa. Haidxe zan emoten ebana gero. Guk zenbat biderrez soldadutzan ha txuskotxue emoten eben eta zera jaten hasi orduko ha txuskotxue akabeu eta hurrengo eguerdira artien bape bez, eta iñok saldu gure bez kalien be, ez zeuan-ta!
- Ta azukerie eta holako kontuek.
- Errazionamentuen hori be, errazionametuen dana, dana, dana, tabakoa ta dana, dana euen errazionamentuen, dana. Errazionamentue Iborrin euen Etxandin, Iborriko danana Etxandin egon zan.
- Ta Iburri danetik hara joan biher izeten ziñien, Meumetik eta dana Etxandire?
- Bai, bai, Iborrikoak Meumekoak be [...] errazionamentue altxetan Iborrire, Iborrire joan biher izeten eban.

12. Kupoa udaletxean entregatu beharra

- **Erref:** MUX-012/017
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:37:39. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ereiten zuen baserritarrak kupoa entregatu behar izaten zuen Ibarruriko udaletxera. Batez ere garia entregatzen zuten. Bertan batutakoa norentzat zen inork ez zekien. Ganaduarentzako pentsua ere errazionamenduan hartzen zen.

13. Artaldea konfiskatuta

- **Erref:** MUX-012/018

- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerran, ardiak eta bildotsak kendu zizkieten. Auzoko bati ere dena kendu zioten. Bere gurasoak, 5 seme frontean izateaz gain, ezer barik gelditu ziren. Soldadu asturiarrak aritu ziren konfiskatzen.

14. Lehengo behiak ez ziren esne-behiak

- **Erref:** MUX-012/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:42:29. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>3-4 behi baserri guztietan egoten ziren, baina ez ziren esne-behiak. Esne asko ematen zutenak geroago jarritakoak dira. Ardiaren esnea gazta egiteko erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Ez orduen esne-behirik ez euan. Orduan ba etxerako esnetxue batu eta biharrerako ganaue egoten zan. Hiru-lau bat behin, horixe egoten zan.
- Esne-behirik eta ez?
- Ez, ez, ez. Orduen esne-behirik iñok be ez hemen. Honek esne-behixek gero ipiñikoak die, gero gero. Honek esne-behixek hemen ipintten hasi zien ta hor berrogeta hamar-hamabost urte, hemen [...]. Hamen lehenau esne-behirik ez zeuan.
- Esnie zer zan ardixena? ze esne edaten zenduen zuok ba?
- Guk behixena, ardixenagaz gaztaie eitten zan, ointxe Sabineke eitten dauen moduen.
- Bai gaztaiek eta gatzatuek-ta.
- Ez gatzatue ez jate gustetan niri, gatzaturik neuk ez dot gure gatzaturik.
- Etxekoa be ez? Sabinen esniegaz eñikoa?
- Gatzatue? A ba gatzatue esan gure dozu? A esne-ure pentseu dot, baia. Gatzatue bai! Ene gatzatue nik hasi zanien nabil jaten, gusteu horixe eitten jat gatzatue. Gatzura aittu dotsut nik, gaztaieri kenduko ure pentse dot nik.
- Gatzatue, "cuajada".
- Hori bai, hori bai gustetan jat. Hori bai.

15. Errota asko prezintatuta

- **Erref:** MUX-012/021
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errota batzuk prezintatu egin zituzten; beste batzuk, ostera, zabalik mantendu ziren. Beraiek Osinbaltzako errotara joaten ziren, ez zuten zarratu; hori dela-eta, beraiek ez zuten arazorik izan. Osinbaltzara jendea urrunetik joaten zen. Txakileko eta Zugastietako errotak prezintatu egin zituzten.

16. Errotaria eta estraperloa

- **Erref:** MUX-012/022
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:45:51. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Osinbaltzako errotaria Pedrin zen, bertako errentadorea zen. Eramandako jenerotik parte bat kenduz irabazten zuen dirua. Estraperloko sasoian dirua asko irabazteko aukera izan zuen.

17. Morokila eta ogia

- **Erref:** MUX-012/024
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:50:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Arto-irinarekin morokil asko egiten zuten. Duela 60 urte baino gehiago ez duela jan Zeperinok morokilik. Oso gustura jaten zuten, ez baitzegoen besterik. Etxean egiten zuten ogia gariarekin egiten zuten. Astean behin egiten zuten, ez ei zen gogortzen.

18. Gernikako bonbardaketako lekukoa

- **Erref:** MUX-012/027
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:54:21. **Bukatu:** 00:58:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikako bonbardaketak bertan harrapatu zuen. Kaixao tabernan zegoela, jendea arineketan ikusita, Pasealeku azpiko babeslekuan ezkutatu ziren. Handik irteterakoan, dena sutan ikusi zuten eta etxeraino, Undaraino, oinez bueltatu ziren anaia eta biak. Babeslekura sartu eta segidan hasi ziren bonbak botatzen. Dentistarenera joan zen egun hartan. Ez zuen pentsatzen bizirik irtengo zirenik.

19. Gernikara trenez; etxeko en ardura

- **Erref:** MUX-012/029
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:59:19. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gernikako bonbardaketako egunean, trenez joan ziren Gernikara. Sasoi hartan, Zugastietako tren-geltokia hurbil zegoela iruditzen zitzairen, ohikoa baitzen oinez joatea; Gernikaraino ere askotan joaten ziren oinez Undatik. Bonbardaketa ostean tren-zerbitzua bertan behera gelditu zen. Etxekoek Gernikako eraso aurrez aurre ikusi zuten eta arduran egon ziren zain.</p>

Transkripzioa

- Gernikera han astelehenien zelan joan ziniien?
- Trenien. Undetik trena. Orduen hur-hurrien eukitten gendun estaziioa, ez gendun pentsetan urrun dauenik guk. Zugastietan pentseu be ez! Ta baten baiio sarrixau, ta baten baiio sarrixau Gerniketetik be oiioez be, Undera. Bai. Oingo moduen, oingo umiek ez dauz holan useute.
- Bonbardeo eta gero ez trenik ez ezebez ez zan geratu han.
- Ez. Guk danok anaia difuntue eta ni eta beste lehengusue handik urten giunien ba! "¡Echando rayos!".
- Eta Undera heldu ta zer? ze konte zenduen?
- Ze konteko geun ba? Paseu zana. etxien arduran.
- Entereu zien, ala?
- Gernike zelan apurtzen, zelan apurtzen ta bonbak botaten ikusiko zeuezan ba Undetik. Jesus, Maria ta Jose! Horixe bai! Horixe bai. Undetik hori urrin, baia bistan dau. [...]. Arduran etxien. Bai, harek denporak paseu zien. Ta holantxik paseu zan.

20. Maisua jokoan, eurak olgetan

- **Erref:** MUX-012/031
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:01:35. **Bukatu:** 01:03:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskola sasoi, Ixerka eta pilotaka olgetan zuten. Maisua sarritan ez zen azaltzen jokoan aritzen baitzen Zugastietan edo eskola ondoko etxe batean. Pilotak etxean egiten zituzten artilearekin eta larruarekin.

21. Maisu-maistren etxea eta udaletxea

- **Erref:** MUX-012/032
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:03:07. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Neska-mutilek ez zuten elkarrekin olgetan. Eskolan ere gela banatan egon ziren. Maisu-maistrak ondoan bizi ziren. Udaletxea ere bertan ondoan zegoen. Eskola-liburuak alferrikakoak ziren, ez baitzuten ezer ikasi.

22. Ibarruriko tabernak, denda eta hiltegia

- **Erref:** MUX-012/033
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Ibarruriko Etxeandi baserrian taberna, estankoa eta herriko telefonoa zegoen. Etxezarren eta Belaustegi "Belosti" ere taberna egon zen. Bertan egon den azken taberna, Bikandi, lehen abade-etxea zen. Ondoan, Martzelinaren taberna zegoen. Gerra sasoian azken taberna hori hiltegi bezala ere erabili zen. Handik urte askotara Martzelinak denda jarri zuen bertan. Martzelina gorozikarra zen, baina Undan bizi zen.

23. Zugastietako tabernak

- **Erref:** MUX-012/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:09:15. **Bukatu:** 01:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Zugastietan hiru taberna ezagutu zituen: "Estaziñokoa", herriko etxekoa eta Etxe Nagusiko Inaziorena. Eugeniok eta Tomasek ere bazuten; azken horrek estanko eta guzti.

24. Undan zenbat gura ur zuten

- **Erref:** MUX-012/037
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Undan etxe aurrean zure zenbat gura ur. Izan ere, garbitoki handia zuten eta beste auzo batzuetara ere horko ura eramaten zuten. Burdaria auzokoen arazoak izaten zituzten ur gabeziagatik.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek uretan nora joaten ziñien, ur bille?
- Unden? Unden bertan etxe eurrien geunken ure, zemat gure, labaderoaz. Goidxen goiko kofradidxen hiru bizimodu dauz ta gero ermittie eta ermittie orduko nire jaidxotetxiedau, beste hiru etxe dauz han. Haren hiru etxien eurreko partie labaderoa eta goikoak be igual-igual euren labaderoa eukien. Uren faltarik ez euan. Ba horkoxe ure dau eroanda lborri danera ta, danera. Burdidxera horkoxe ure dau eroanda.
- Oin ur deposittoa be han dau.
- A oin hori depositeo neusidxe? Hori honetarakoa da, hori honetarakoa da.
- Ta ganaduentzako ure be bai? Handik hartzen zenduen?
- Ene! labaderoan ganaue, zemat gure, gure dan beste ure. Eta ure zerien barik etor zanelez, zangan etorten zan ure ganauek gure bana edaten eban ure. Unde uraaz ondo egon da beti. Ondo. Burdidxe txarto. Burdidxe uraaz-ta txarto ibiltzen zan. Burdidxen hemendik edo ez daitz nundik gora, ba horrek be [...]. Oin bai, oin hemengoxe ure, hemendixik doan ure doie danien. Gero deposittoa ein euren hor, [...] baiño gorau ta hori danera doie.

25. Ertzillatik jasotako argindarra; petrolioa

- **Erref:** MUX-012/038
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:13:46. **Bukatu:** 01:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Undan Oka auzoko Ertzillak sortutako argia zuten. Baina askotan ez zuten izaten argi nahikorik Gernikarako argindarra ere bertatik igortzen baitzen. Bestelakoan, petrolioa erabiltzen zuten. Karburua heldu zenean, aurrerakuntza handitzat hartu zen. Elektrizitatea ezkondu ostean jaso zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta argidxe?
- Argidxe lehenau lehenau, hemen honetan ez euan argirik, baia Undan egon zan argidxe Erzillana. Erzilla Okakuena egon zan, baia zer? erdixetan bez argirik. eta egoten zanien be kandela bat hoba argidxe baiño be. Bai, klaro! Harek berak indder gitxi lehen eta gero luzetu eban, Gernikera artien luzetu eban linea, eta emon ezin. Argirik emon ezin, emon ezin. Gero ba jentiek ez, gero ba itzi ein otsien /eintsien/.
- Eta karburoa-eta ez zenduen ibilli zuek?
- Karburoa. Lehenau petrolioa, petrolidxo lehenau, karburoa agertu zanien handidxe zan. Eta gero butanoa agertu zanien, ez zan biher argiirk.
- Eta petrolixoagaz zelan ibiltzen ziñien, ba?
- Kandillien. Holako kandiltxu bet, farola? ta sartzekoa eta petrolioa beteten zan metxiaz, metxia hartzen zan gioittik behera eta petrolidxo usin bet etxe guztidxen be negargarridxe. Baia orduen petrolio usiñegaiztik bardin-

bardin. Geur die, geur die honek [enpaidok]. Orduen petrolio usiñegaitzik zer zan bez.

- Eta etxe danetik ibiltzen ziñien horregaz argittasunegaz?

- Bai.

- Sabaira ta dana?

- Farolaaz, baia. Farola zertxu bet, holan koadrotxu bet, kristelaaz ta han barruen joaten zan zera eta batundekoa goidxen eta bat eusten eta bestie sabaire joaten baziñen beste bat eusten zerori. Gero karburoa joe, karburoa handixxe zan. Gero butanoa agertu zanian butanoa izen zan ba geurko argiriik, elektrizidaderik handidxena baiño edarraua. Bai.

- Ta Undera etxe danetara batera heldu zan argidxe?

- Bai, gero bai. Iberduerok, batera.

- Eta hori oin dala zemat urte heldu zan? zuk ezkondu eta gero edo eurretik?

- Gero. Muniketa geroau. Hemen geroau, Muniketa eta hona. Hemen gero, hemen oniño argidxe etor dala zemat da ba? hau ekarri deuela hona, Meumera eta? Hoge urte?

- Gehitxuau izengo da.

- Hogeta hamar ez, ba zen eingo die, hogeta hamar urte edo, ete da gero? ete da gero?

26. Muniketako taberna, bolatokia eta erromeria

- **Erref:** MUX-012/039
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:16:29. **Bukatu:** 01:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Muniketan bi taberna ezagutu ditu. Bolatokia ere taberna bat zegoen etxearen aurrean egon zen. Inguru guztietako jendea batzen zen bertan. Domeka eta jai arratsaldetan erromeria egoten zen; Serafin zen soinu-jotzailea.</p>

Transkripzioa

- Muniketan aittatu dozu eta ez doguz esan. Muniketan tabernie be egon zan, ezta?

- Egongo ez zan ba tabernie! Ni jokoan joaten nazen lekure beti ba arratsaldetan joaten naz. Harek be jubileta dauz: Patxi, Jose Luis ta Daniel jubileta dauz eta han pasetan dot denporie, jokoan ez badan kontu kontetan. Eta tabernie hantxe egoan nire akordu guztidxen. Eta gero hak itzi otsen eta gero Goikoetxetik ipiñi eban, beran koiñetuek ipiñi eban gero, Goikoetxetik ipiñi eban. Eta gero ha joan zan biherrien zera biherrien papelerara joan zan, sartun zen. Ta gero ha joan zanian gero ya han tabernan ez zauen zertu, ez eban zertu.

.-Eta bolatokidxe egon zan?

- Bai, botatokidxe be bai. Etxe eurrien, etxe eurrien bolatokidxe, bolatokidxe be. Eta horra batzen zan jentie! Baie Gorozi ke aldetik, Etxano, Oromiño, Mendata, Mendata aldetik be dana jentie batzen zan hor. Hori beterik egoten zan domeketan. Soiñue, jeneralien Serafin egoten zan orduen, Serafin soiñu joten.

- Ze izeten zan domekatan-edo?
 - Domekatan. Domeka atsaldetan eta jai atsaldetan. Serafin jeneralien egoten zan. Bai domeketako haixe. Eta jentie batzen zan gero asko!
 - Eta nungoa zan ba Serafin? nungo semie?
 - Serafin kamiñerue izen zan hori. Hori Zugastietan bizi zen. Hori Zugastietan bizi zen, untxe Eujenio bizi dan etxien uste dot bizi zala Serafin, kamiñerue zan hori. Eta gero hortik bota auen Arratixara edo horra destiñau eben hemendik. Ta gero Zornotzan bizi zan azkenien, hantxe hil zan, Oromiñokoa semie zan hori. Oromiñokoa.

27. Txakur handi bat erromeria bakoitzeko

- **Erref:** MUX-012/040
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:18:20. **Bukatu:** 01:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Erromerietan denek zuten nahiago baltseoan aritzea, baina mutilek txakur handi bat ordaindu behar izaten zuten. Ordaintzen zutenei tiket bat jartzen zien jakiteko nork ordaindu zuen. Batez ere Muniketako erromeriara joaten ziren. Zugastietako erromeria errepidean bertan izaten zen. Zugastietan oilar-borrokak eta ahari-topekak egoten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta zelakoak izeten zien horrek erromeridxek?
 - Alegriek. Alegriek, erromeridxek alegriek horrek.
 - Eta agarrauen-eta ibiltzen ziñien?
 - Ba klaro baze. Agarrauen hoba ez! Jentiek, jentiek agarrauen gurau solten baiño. Bai agarraue izeten zan, agarraue eta soltie bidxek zien, bidxetara, bidxetara.
 - Eta jantzan eittie debalde zan?
 - Ez! Txakur handidxe pagetan zan. Bat egoten zan batzeko txakur handidxe edo holako bat. Gero, gero gehitxuau zala penseten dot. [...] Neuk nire akorduen txakur handidxe, txakur handi bat izeten zan atsalde guztireko jantzan eittie. Nik jantzan, gitxi gusteu jat neuri.
 - Eta eukitten zendun ala domekero txakur handi bat pagetako dirue?
 - Ba txakur handi bat orduen be ez zan, bai. Ta orduen dirue zan bai. Baia txakur handi bet bai.
 - Eta danok pagetan zenduen?
 - Bai, bai, jantzan eitten eben danari.
 - Neskari be bai?
 - Ez, ez neskari ez, parkatute. Neskak hor be suertie. Henbrak dielako harek libre.
 - Eta pageu eitten zenduen eta gero ze pasetan zan?
 - Ezebez. Tiketak ipintzen otsuen paparrien. Papertxu bet ipintten eben.
 - Eta arratsalde osoa libre?
 - Bai harik eta akabau artien libre, libre.
 - Eta nungo erromeridxetara joaten ziñien gehidxau?
 - Hamen Muniketatik iñora bez. Hementxe egoten zan erromeridxe-ta.
 - Eta Zugastietara-ta, ez?
 - Bueno, iñoz bai. Baia beti jokerie hona. Iñoz Zugastietara be bai.

Zugastietan erromeridxe bakizu nun eitten zan? orduen denporan? Herriko tabernako herriko kamiño-kamiñoan. Kamiñoan, kamiñoan jantzan eitten zan. Orduen kotxerik bez, ze ibiltzen zan, ba? "Al año San Juan" kotxetxuen bat pasetan bazan. Han kamiñoan eitten zan erromeridxe.

- Eta nungo jentie hurreratzen zan hararte?

- Batzen zan. Gorozi ke eta hamendik Iborri aldetik, Iborri aldekoak sarriten hona etorten zien. Zugastietako aldien jente asko hona batzen zan, hemen asko jentie, asko. Gero ez, gero ya gitxittuten hasi zen, baia ez. Ni gaztetxue nitzenien batuten zan hemen jentie, bueno! Gero sarriten egoten zan oilar-burrukie, ahaitto-burrukie-ta ipiñitte Josek. Bai sarri egoten zan. Orduen oilar-burrukie eta ahaitto-topekie eta horrek lekutan jentie Jainkoak [...] lekutik, geur ez inportantiek, geur iñor ez litteke egongo. Baia ordureko geuza handidxe zan orduen, orduen sasoi en, bai, jentie batzeko.

28. Undako San Markos jaiak; letania

- **Erref:** MUX-012/041
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:21:22. **Bukatu:** 01:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Undako San Markos jaietan letania egoten zen. Sermoirako kanpoko fraidea ekartzen zen. Abadearen eta fraidearen bazkaria kofradiako denek ordaintzen zuten. Letania zer den azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- San Markosetan-eta zoz er eitten zeuden zuek Unden?

- Bai.

- Ze eitten zan?

- San Markotan egoten zan letaiñie. Egoten zan mezie ta gero sermoie-eta eitteko kanpoko fraillie ekarten zan horra. Ta hak frailliek, abadi ek-eta eitten eban orduen [...] egunen ipintzen otsien bezkarixe danena. Ta ha pagetan giñun kofradi guztidxe, hango gastue pagetan giñun danak. Hor sartzen gintzezan bat, sei zazpik, hamar, hamalau edo hamabost-edo sartzen zan. Frailliek pageu frailliena eta bezkari eta danak beti eitten zan.

- Eta letaiñie esan dozu ta espliket dozu zer dan letaiñie?

- Nik entzune bakar-bakarrik. Ba letaiñie, letaiñie ba kantetan zerien urten Iborrin eta zer artien. Zer artien etorri San Markora artien errezuek bidien eindde. Hori izengo da, ez? Bai ba!

29. Andra Mari jaietako danbor- eta danbolin-jotzaileak

- **Erref:** MUX-012/042
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:22:52. **Bukatu:** 01:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ibarruriko Andra Mari jaietan txistulari eta danbolina egoten zen, soinua noizean behin. Zeperino sekula ez zen izan dantza zalea. Danborra jotzen Ajuriako Otxategi baserrikoa izan zen eta danbolin-jotzailea Ariatzako "Txistu".

Transkripzioa

- Eta Andra Maridhek Iburrrin zelakoak izeten zien?
- Andra Maridxetan ba tanboliñe egoten zan eta gero soiñue be bai, filarmonikie. Bai, gero horrek. Baia jeneralien tanboliñe, txistularidxe, tanboliñe eta tanborra. Tanborra, tanborrerue eta bestie txistuegaz tanboliñe eta erromeridxe.
- Ta han be jantzan?
- Bai. Nik neure denporan jantza asko ez dot ein. Jantzan ez jat gusteu egundo bez, ez ez, egundo bez.
- Neskañe hurreratzeko-ta.
- Bai, baia hamentxe. Jantzan ez jaten gustetan. Nik hemen Muniketan be hor beste batzukin be Muniketan hor be jeneralien nik jantza asko eindde ez, jantza asko eindde ez.
- Ta Iburrrin nor egoten zan tanboliñe eta filarmonikie-eta joaten ba?
- Ba hor egoten zan tanbolinterue Adxudxeko Otxatikoa. Bai tanborraz. Ta tanbolinterue gero egoten zan, zera Aritzakoa "Txistu" esaten ostien Aritzako eoten zien bai. Eta horregaz lehenau egoten zan hori baiño ariñau, beste bat egon zan Otxatikoa tanboliñe bata eta tanborra bestiek jotzen eban. Ta gero zerekoak azkeneko egoten zan Aritzakoa, Aritzakoa, Aritzakoa egoten zan.

30. Praka "mil rayas"ak

- **Erref:** MUX-012/045
- **Iraupena:** 0:08:06. **Hasi:** 01:25:54. **Bukatu:** 01:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Praka "mil rayas"ak erabiltzen zituzten. Egindako arroparik ez zen egoten, josi egiten zituzten. Urrutxuko Mariaren ama izan zen jostun lanetan aritzen zena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com